

Arianne Kareaga Irazabalbeitia

Kooperatibismo komunitarioaz

Zer esan Joxe Azurmendiri buruz? Dagoeneko dena idatzita dagoelako bizipena daukat haren heriotzaren osteko azken asteotan. Pentsatzen jarrita, nire izateko eta munduan egoteko modua markatu du hein handi batean, egiten dugun horri hitzak jarritz eta zentzua emanez, elikatuz.

Nagusiki, komunitatea eta kooperatibismoa zein pertsona kooperatiboa ulertzeko modua da nik haren obratik jaso dudana. Ez naiz pentsalaria, gehiago nabil praktikan harilkatuta. Azurmendik idatzita-koen aplikazioan dihardugula esango nuke. Karrera bukatu berritan irakurri nuen lehen aldiz Azurmendiren kooperatibismoari buruzko liburua; bertan, sakon aztertzen ditu askatasuna, identitatea eta komunitatea kontzeptuak. Haren lanetan maiz ageri da pentsamendu kritikoa, Mendebaldeko ideologia nagusien azterketa zorrotza eta ikuspegi alternatibo baten beharra.

Bizi praktika baterako inspirazio izan dira haren ideiak niretzat. Alde batetik, kooperatibismoa ulertzeko modu propio bat. Eta, bestetik, euskalduntasuna eta herri identitatea ulertzekoa eta bizitzekoa. Haren pentsamendua sakonki humanista eta komunitarioa da, eta horrek lotura estua du gaur egungo kooperatiba pentsamenduarekin.

Haren lanek Mendebaldeko pentsamendu indibidualista eta estatu-zentrikoa kritikatzan dute eta komunitatearen garrantzia, herri-subiranotasuna eta erabaki kolektiboaren logika azpimarratzen dituzte.

Kooperatibismoa ez da arazo batzuen soluzio praktiko oportunistak bat bakarrik (batzuetan horixe ere izan daitekeela ukatu gabe). Historian ikusita, kooperatibismoa hori baino askoz gehiago da eta gehiago izan gura du [...]: 1. Pentsamendu bat da, filosofia bat, espiritu bat, eta 2. Eraldaketa proiektu bat. (Joxe Azurmendi, 'Hitzaurrea', in Askoren artean, *Lankidetza. Arizmendiarrietaren eraldaketa proiektua*, Lanki Ikertegia - Mondragon Unibertsitatea, 2000, 13-17, 17. or.)

«Ezer ez da betiko eginda», zioen, eta gogoetak gaurkotu eta aldatu behar zirela. Arizmendiarrietak Arrasateko mugimendu kooperatiboaren bueltan zioena azpimarratzen zigun: «Bizitzaren legea da egokitzen asmatzea». Azken hamarkadan, kooperatiba lurraldetu, komunitario eta berrien sustapenean jardutea egokitu zaigu bestelako kooperatibismo gaurkotu bat martxan jartzeko, Azurmendiren kooperatibismoa praktikan jarritz eta haren ideia gako batzuk helduleku izan direla jabetuz.

Horretan dihardugu, etengabe egokitzen asmatzen, eta kooperatibismoa gaurkotzen, beraz, tokian tokiko ekosistema kooperatiboak eratzen ari garenok, korrante berriagoetatik ere edanez: ekonomia feminista, klima-aldaketa edo teoria dekolonial eta antirrazistak.

Haren pentsamendua kooperatibismoaren oinarri etiko eta filosofikoekin lerrokatzen da: autonomia, elkartasuna, komunitatearekiko konpromisoa eta parte-hartze demokratikoa, esaterako. Haren lanek ez dute soilik iraganaren analisi kritikoa eskaintzen, baizik eta etorkizunerako norabide etikoa ere marrazten dute.

Ildo beretik, gizartearen eraldaketaren bidean Azurmendik hausnartzen dituen balio eta herrigintza kontzeptuak praktikan jartzen dira kooperatiben jardunean, eta kooperatibismoaren olatu berriak egitura sendo eta parte hartzaileetan islatzen ditu haren irakaspenak.

Askotan azpimarratu du pentsamendu autonomoaren eta herrien autodeterminazioaren garrantzia.

Ilustratuen ideologia unibertsalista kritikatu du, zapaldutako herrien berezitasunak eta hizkuntzak ukatzen dituelako; horregatik, kooperatibismoa tokiko ezagutza eta balio kulturaletan oinarritu behar dela defendatu du.

Haren ustez, identitatea komunitatean eraikitzen da, eta kooperatibismoa kapitalismoaren aurkako erresistentzia etiko eta soziala da, elkar zaintza eta erabaki partekatua oinarri hartuta. Azurmendiren pentsamendua masa eta solidotasuna eskaintzen duen ipar etikoa da garai 'likido' hauetarako, kooperatibismoa ez baita soilik eredu ekonomiko bat, baizik eta pentsatzeko eta bizitzeko modu bat. Eta, bide horretan, Azurmendi inspirazio-iturri izan daiteke, gure gizarte bidezkoago eta gizatiarrago baterako bidean.